

HERIOTZA

Muga baten esperientzia eta azken misterioa

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Eli Astiasaran

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

Gizakia, heriotzaren kontzientzia duen izaki bizidun bakarra dela zioen Voltairek. Heriotza biziaren erabateko eta betiko amaierari deritzo. Ikuspuntu biologikotik, izaki bizidun baten prozesu homeostatikoaren amaieran datza. Kontzeptu dinamiko eta konplexua da.

Heriotzaren kontzeptu biologikoa aldatu egin da transplanteak bezalako aurrerakuntza teknologikoengatik: XX. mendean zegoen bihotz-gelditzeagatiko heriotza garun-heriotza (garunaren funtzioen atzera gabeko gelditzea) bilakatu da. Kontzeptu biologikoak aldaketak jasan dituen moduan, ikuspuntu sozialak eta kulturalak ere etengabeko aldaketak bizi izan ditu historian zehar.

Heriotza, norbanakoaren testuinguru sozialaren baitan ulertu behar da; antolakunde eta rol sozialen definizioaren baitan. Izan ere, heriotzaren esanahia sozialki definitzen da. Hileta-erritu, duela eta lutuaren izateak garai eta gizarte bakoitzaren eragina islatzen dute. Heriotza, beraz, gertakari sozial bat da eta kultura bakoitzak heriotzaren *arazoa* modu desberdinean maneiatzen du.

Mendebaldeko zibilizazioa izenekoan, giza portaeren eta agente sozialen jarrerak baldintzatzen dituzten lau eredu nagusi aipa ditzakegu, une historikoen arabera sailkatuak:

- **Heriotza otzandua:** Goiz Erdi Aroari dagokio eta ekimen kolektiboen baitan ulertu behar da. Heriotza drama pertsonal bat izatetik urrun, espezieak iraunarazteko bitartekotzat jotzen zen. Heriotza halabehar kolektiboa zen eta gizakia patu horren mendekoa. Heriotzari ohean itxaroten zitzaion, lasaitasun eta apaltasunez, izaera publikoa zuen zeremonia antolatu batek lagunduta.
- **Heriotza propioa:** Erdi Aroaren amaiera aldera, indibiduoaren komunitateari gailentzen hasi zitzaion, eta norbanakoaren bizitzak garrantzia hartu zuen. Heriotza, ordena natural baten baitan baino, ordena moral baten baitan ulertzen hasi zen. Azken Judizioaren egunean, norbanakoaren arimaren patua epaituko zen. Heriotza, beraz, kontu pribatu bilakatu zen.
- **Bestearen heriotza:** Arreta hildakoa ez zenarengana zuzentzen hasi zen XVIII. mendean. Garai hartan, familia nuklearra sortu eta bere funtzio afektiboa indartsua zenean, norbanakoak bizi zuen heriotza ez zen berea propioa, bere gertukoena baizik. Senideen arteko harremanen sakontasunak medio, senitarteko baten heriotza esperientzia mingarritzat jotzen zen, beldurra sortzen zuen zerbait zen. Heriotza ziklo naturalari lotzen bazitzaion lehen, garai horretan hausturari lotu zitzaion.
- **Heriotza debekatua:** XX. mendearekin batera, etxeak heriotzari lotutako espazioa izateari utzi zion. Beste bi espaziotik hartu zuten protagonismoa: ospitaleek eta beilatokiek. Ospitaleak heriotzaren erritu-mementoa deuseztatu egin du, baita heriotzaren mementoa luzatu ere. Beilatokiak, berriz, dolu-mementoaren izaera publikoa mugatu egin du. Heriotzaren eta minaren agerraldi publikoak debekatu egin dira, heriotza tabu bihurtuz.

Teknologikoki aurreratutako gizarteetan, indibidualismoa nagusitu eta harreman afektiboak pobretu ahala, heriotza bizitza sozialetik kanpo geratzen da; ezkutatu egiten da. Egungo gizarteek, beraz, iraganekoek baino gertutasun edo trebantzia gutxiago daukate heriotzarekiko. Mendebaldeko gizarteetan, gainbehera fisikoaren prozesua eta heriotzari lotutako guztia arbuaitzen da. Hortaz, heriotza gure egunerokotasunetik aldentu eta heriotza aurreikusia eta normalizatua

dagoen instituzioetara bideratu da. Askotan, hiltzorian dagoenarekiko harremanak despertsonalizatu egiten dira, eta, ondorioz, hiltzorian bakardade-sentimendua izan dezake. Prozedura tekniko, zientifiko eta burokratikoek bigarren mailan uzten dituzte prozesu afektiboak, eta heriotza egitate pribatu eta ezkutukoa bilakatzen dute..

Heriotzari aurre nola egin irakasten ez diguten gizarte honetan, gaia jasanezina bihurtzen da. Heriotza ikusezina da; ezin saihestuzkoa dela ahaztea nahiago dugu. Erljioak eskaintzen zigun transzendentzia edo betierekotasunaren ilusio espiritualaren ordezt, teknologiak eta medikuntzak ilusio fisikoa eskaintzen digute: sufrimendu edo minik gabeko heriotzaren ideia gure buruetan errotu nahi dute, hiltzeko leku bat eskainiz (ospitaleak) eta segurtasun faltsu bat zabalduz. Segurtasun faltsu bat, dudarik gabe, egungo gizakia ez baita heriotzaren aurrean seguru sentitzen. Segurtasun falta hori loa kentzerainokoa izan daiteke, gure unea noiz eta nolakoa izango ote den gure buruari galdegiten diogunean.

Heriotza, objektu kulturala bezala aztertuta, aldatuz joan da jendearen inkontziente kolektiboan; heriotzaren aurrean dugun portaera aldatzen den heinean, heriotzaren esanahiak etengabe eraiki eta berreraikitzen baitira. Egun eta iraganean ez gara berdintz hiltzen, ez eta gizarte eta kulturaren arabera ere. Heriotzaren eboluzioak bizitza beraren beste hainbat aspektu kultural aldarazi ditu. Zientzia eta arrazoiak sutsuki balioesten diren gizarte mendebaldarretan, hilezkortasunaren ustea eta itxaropen espiritualak erabat baztertzen dira. Horrek segurtasun eza, beldur eta bakardade sententzioak sortzen ditu.

BA AL ZENEKIEN?

- Douglas MacDougall ikerlariak “**arimaren pisuaren teoria**” plazaratu zuen 1927an. Teoria horren arabera, giza gorputzak 21 gramo galtzen ditu hiltzen den unean bertan. Teoria horren jarraitzaileentzat, arimaren izatearen frogat bat da, 21 gramo horiek arimaren pisuari baitagozkio. Hiltzeko unean ziren gaixoekin egindako esperimentu horiek ez dira zientifikotzat jotzen, baina, kultura herrikoian, zifrat hori arimaren masaren neurriaren sinonimo bilakatu da.
- Halloween, munduan zehar zabaltzen ari den jai iparramerikarra, azaroaren lehen ospatzen den Santu Guztiaren Egund kristauaren deribazioa da. Egund hori, era berean, zelta jatorridun **Samhain** jai paganotik dator. Haren esanahia euskaraz "udaren amaiera" da. Uzta-bilketa sasoiaren amaieran ospatzen zen eta iluntasunarekin batera hasten zen "Urtezahar Zeltaren Egund" zen. Trantsizioko jai bat zen (urte batetik bestera igarotzekoa) bai eta beste mundurako irekiera ere. Bidean geratutako lagun maiteak gogoan izaten ziren. Europa osoko herrialde zeltak hiru mila urtez ospatu izan dute.